

PRACTICUM I-AREN INGURUKO ZENBAIT ARGIBIDE

1. Ikastetxean burutu beharreko egonaldia

2017eko urriaren 16tik azaroaren 17ra (biak barne, 5 aste).

2. Bilerak, noiz?

Irakasle guztioi gogoratzen zaizue *ezin ditugula bilerak klase orduetan jarri* eta, bilera deitu baino lehen, ikasleen ordutegiak begiratzeari komenigarria dela, beraien egoerara ahalik eta hobekien moldatzeko:

HH: <http://www.ehu.es/eu/web/hefa/haur-hezkuntza-gradua>

LH: <http://www.ehu.es/eu/web/hefa/lehen-hezkuntza-gradua>

Bilera deia emailaz eta norberaren bulegoko atea jarritz egin. GAUREn daukazuen zerrendan agertzen zaizkizuen ikasle emailtara mezua bidali.

3. Practicumari buruzko informazioa:

Practicumari buruzko informazio orokorra (aurkezpena, egutegia, prozedurak...) web orrian dago: <http://www.ehu.es/eu/web/hefa/aurkezpena-practicum>. Ikasleentzako informazioa: <http://www.ehu.es/eu/web/hefa/haur-hezkuntza-eta-lehen-hezkuntza-graduak> eta tutorearentzako baliabideak ere han aurkituko dituzue: <http://www.ehu.es/eu/web/hefa/instruktor-haureta-lehen-hezkuntza>.

4. Practicum tutorearen zenbait zeregin:

- Ikasleekin bilerak antolatzea: hasi baino lehen, tartekoa(k), eta ondoren.
- Ikasleei argitzea bere funtzioak, betebeharrak...
- Bere ikasleekin sor daitezkeen arazoei konponbidea ematea eta, baldin ba dira, kasu berezien jarraipena egin (exentzioa, murrizketa...)
- Ikastetxeko tutoreekin erlazioa: ikaslearen eta ikastetxeko tutorearen funtzioak argitzeko, ikasleak bere ordutegia betetzen duela bermatzeko, ikaslearen jarraipena eta ebaluaziorako...
- Ikastetxeko tutorearekin aurrez aurre, eskutitz bidez eta emailaz edo telefonoz harremanetan jartzea.
- Ikastetxeko tutoreen notak jasotzea.
- Practicumaren Practicum I-eko beste tutore eta koordinatzailearekin batera.
- Informazio gehiago web orrian duzue: <http://www.ehu.es/eu/web/hefa/practicum-guias>

5. Practicumaren kalifikazioa

- Ikastetxeko ebaluazio orriak jasotzeaz tutorea bera arduratuko da. Ikastetxeek betetakoari, HEFAko tutoreak *bere ebaluazioa* gehituko dio eta, amaierako nota kalkulatu du. Komeni da, ikastetxeko eta norberaren kalifikazioak argitaratzea ikasleak informazio hori izan dezan.
- Ikaslearen praktiketako notak *GAUR programan* akten atalean ere sartu behar dira; beraz, beste irakasgaiekin egiten den moduan, erreklamazio epearekin (5 egun) argitaratuko dira. Epea amaitu ondoren, espedientera pasa eta *idazkaritzan sinatuko* dira.
- Ikaslearen notak argitaratzeko data: Ohiko deialdia: kalifikazioak GAUREn *argitaratu* behar dira. Horretarako epea 1. *deialdiko (maiatzeko) azterketei dagokiena* izango da. Azkeneko akta, kalifikazio zerrendarekin batera argitaratzea gomendatzen zaizue, ikasleek praktikaldian eta memorian lortutako notaren berri izan dezaten. Ezohiko deialdia: kalifikazioak GAUREn *argitaratu* behar dira dagokion epeetan.

6. Oharrak

- Ikasleen datuak GAUREko nahitaezko praktikak atalean lor ditzakezue.
- Ikastetxeen datuak lortzeko web orriko [ikastetxeen zerrendara](#) jo. Informazio gehiago nahiko bazenute jo Begoña Urbietarengana, 1.03 bulegoan.
- Ikastetxeko tutorearen helbideak eta telefonoak lortzeko biderik zuzenena da. praktikaldiaren lehen astean ikasleek lortzea eta emailez bidaltzea.
- Ikastetxeetara bisitak eginez gero, ordaindu egingo dira eta prozedura emailez bidaliko zaizu.
- Egoera berezian dauden ikasleen mugak argi izan:
 - o Eskaera berezirik egin ez duen ikasle orok praktikaldia inolako mugarik eta baldintzarik gabe bete behar du, ikastetxeko ordutegi osoa betez eta, hala behar izanez gero, bestelako ordu batzuk ere osatuz: bilerak, tutoretzak... (kontuan izan, asteko 30 ordu onartzen zaizkiola ikasleari; gelan beteko dituenak baino gehiago).
 - o Exentzioa duenak bileretara etorri behar du eta bere tutoreak bidalitako lanak bete beharko ditu.
 - o Bere egoeratik eta epeengatik Practicuma luzatzen zaion ikasleak, lanak entregatzeko epeetara egokitu ezingo balu, Practicumeko azken nota ekaineko deialdian jarriko zaio.